

VI EZTABAIDA TXAPELKETA - VI LIGA DE DEBATE ENEUSKERA ARAUTEGIA - REGLAMENTO

1. SARRERA

Hurrengo oinarriak, eztabaida txapelketaren garapenean, orokorrean, jarraitu beharrekoak izango dira. Ezinezkoa da erregelamendu batek, lehiaketa batean eman daitezkeen gorabehera guztiak aurreikustea, beraz, egoera hauetan, arbitroak testu honetan zehaztutako arauak jarraitu beharko ditu eta egoera zehatz bakoitzari aplikatu. Dena den, bere iritzia eta analogia izango dira tresna nagusiak.

2. EZTABAIDAREN PARTAIDEAK

Hurrengoak izango dira eztabaidaren partaideak:

- Aldeko eta aurkako taldeak
- Arbitroa
- Epaimahaia
- Ikusleak

Taldeak gutxienez hiru pertsonakoak eta gehienez 5 pertsonakoak izango dira. Beraien artean taldeko buru bat izendatuko da eta, honek, arbitroaren eta epaimahaiaren aurrean taldearen ordezkapena izango du. Eta honek parte hartu ahalko du ahozko txandetan.

Arbitroak eztabaida moderatuko du, txandak kronometratuko ditu eta ezingo du inoiz epaimahaiaren parte izan, nahiz eta hauei deliberazioetan aholku eman ahalko dien.

Epaimahaian parte hartu ahal duten epaileen kopurua ez dago zehaztuta.

1. INTRODUCCIÓN

Estas bases regirán en términos generales el desarrollo del Torneo de Debate. Puesto que es imposible que un reglamento prevea todas las incidencias de un campeonato, quien arbitre aplicará las normas de este texto atendiendo a cada situación específica. En cualquier caso, sus herramientas principales serán el juicio propio y la analogía.

2. PARTICIPANTES

En el debate participarán:

- El Equipo a Favor y el Equipo en Contra.
- La persona que arbitra
- El Jurado
- El público

Cada equipo estará compuesto por un mínimo de tres y un máximo de cinco personas. Estas designarán de entre ellas a una que capitaneará el grupo y lo representará ante la persona que arbitre y el jurado. La capitana o capitán si podrá participara en las intervenciones orales.

La persona que arbitra, moderará el debate, cronometrará las intervenciones y no podrá ser simultáneamente miembro del jurado, aunque podrá asesorarlo en sus deliberaciones.

No se determinará el número de miembros que deberá tener el jurado. La organización garantizará que en los debates decisivos, como los de las fases finales, el jurado conste de al

Antolaketa taldeak, eztabaida erabakigarrietan, hala nola azken faseetan, gutxienez hiru epaile lortu beharko ditu.

Ikusleak, isiltasunean egon beharko dute eztabaida hasten den unetik honen bukaera arte. Fase guztiak publikoak izango dira eta arazorik gabe sartu ahalko dira gelara. Gela honen jende edukiera izango da muga bakarra.

3. ESKUHARTZEAK

Esku hartzeak euskaraz egingo dira.

Esku hartzeak zutik egingo dira.

Esku hartzeak txandaka egingo dira eta denbora jakin batean, jarraian zehazten den moduan:

Aurkezpena Aldeko Taldea, 3 minutu

Aurkezpena Aurkako Taldea, 3 minutu

Ezeztatzea Aldeko Taldea, 4 minutu

Ezeztatzea Aurkako Taldea, 4 minutu

Ezeztatzea Aldeko Taldea, 4 minutu

Ezeztatzea Aurkako Taldea, 4 minutu

Ondorioak Aurkako Taldea, 3 minutu

Ondorioak Aldeko Taldea, 3 minutu

Aldeko Taldeak baiezko erantzuna ematen dio eztabaidaren galderari.

Aurkako Taldeak ezezko erantzuna ematen dio eztabaidaren galderari.

Esku hartze bakoitzean pertsona batek bakarrik hartuko du parte. Hau identifikatuta geldituko da zutik jartzen den

menos tres personas.

El público deberá guardar silencio desde el inicio hasta el final del debate. Todas las fases serán públicas y la entrada será libre en la medida en que lo permita el aforo.

3. INTERVENCIONES

Las intervenciones se harán en euskera.

Las intervenciones se harán de pie.

Se realizarán por turnos y en tiempo limitado, como se explica a continuación:

Discurso Inicial del Equipo Favor: 3 minutos

Discurso Inicial del Equipo en Contra: 3 minutos

1ª Refutación del Equipo a Favor: 4 minutos

1ª Refutación del Equipo en Contra: 4 minutos

2ª Refutación del Equipo a Favor: 4 minutos

2ª Refutación del Equipo en Contra: 4 minutos

Conclusión del Equipo en Contra: 3 minutos

Conclusión del Equipo a Favor: 3 minutos

El Equipo a Favor, responderá afirmativamente a la pregunta del debate. El Equipo en Contra, responderá a la pregunta del debate.

En cada intervención, solo participará una persona, que se identificará al ponerse en pie.

momentutik.

4. INTERPELAZIOAK

Onartzen da, ezeztatze txandak dirauen bitartean, beste taldeko kideek hitza duen taldeari interpelazioak egitea. Interpelazioa eskua altxatuz eskatuko da, eta, jarraian hitza duenak erabakiko du eskaera onartzen duen, atzeratzen duen, edo, kontrara, onartzen ez duen.

Ezeztatzean, babestutako denbora bat dago, ezeztapen txandaren lehen eta azken minutuak, hain zuzen ere. Momentu hauetan ez da galderarik onartuko. Esan bezala, hitza duenak erabakiko du galdera onartzen duen ala ez, eta ezetz erabakiz gero, ez da galdera ez erantzuntzat bezala aktan jasoko.

Interpelazioek ezingo dute 15 segundo baino gehiago iraun. Interpelazioak, galderak, xehetasunak edo argibideak izango dira; ezingo dira inoiz erabili norberaren argudioak garatzeko.

5. EZTABAIDAREN HASIERA

Eztabaida, arbitroak taldeen buruak deitzen dituen unean hasiko da. Jarraian, beharrezkoak diren argibideak eman ahalko ditu eta gaia eta talde bakoitzari dagokion jarrera zehazteari ekingo dio. Zoriaren bidez, erabakiko da talde bakoitzak aldeko edo kontrako jarrera hartuko duen.

Talderen bat eztabaidan agertzen ez bada edo justifikazio arrazoirik gabe 10 minutu gehiago atzeratzen bada, topaketa galduko du. Horrela, aurkariak,

4. INTERPELACIONES

Durante los turnos de refutación se permite que las personas del equipo contrario, interpelen a quien está en el uso de la palabra. La interpelación se solicitará levantando la mano y el orador o la oradora decidirán si atiende, pospone o rechaza la petición.

En la refutación habrá dos periodos protegidos, el primer minuto y el último, en los que no se podrá formular preguntas. Como se ha indicado, el orador o la oradora decidirá si acepta la interpelación o no, y en caso de no atender una pregunta, esta no será registrada en el acta como pregunta no respondida.

Las interpelaciones no durarán más de 15 segundos. Las interpelaciones serán preguntas, matizaciones o aclaraciones.

Nunca podrán servir para desarrollar argumentos propios.

5. INICIO DEL DEBATE

El debate se iniciará cuando la persona que arbitre convoque a las capitanas o los capitanes de los equipos. El árbitro o la árbitra, hará las aclaraciones necesarias y procederá al sorteo del tema y la postura que deberá defender cada equipo.

Si un equipo no comparece o se retrasa más de diez minutos sin causa justificada, perderá el encuentro. En ese caso, el equipo rival obtendrá la puntuación máxima permitida por el reglamento.

lehiaketaren arauak ematen dituen gehienezko puntuazioa jasoko du.

6. EZTABAIDAREN GARAPENA

Eztabaidak dirauen bitartean, ezingo dute kanpoko inolako laguntzarik jaso eta, beraien artean, idatzizko oharren bitartez bakarrik komunikatu ahalko dira.

Guztiz debekatuta dago eztabaidaren garapenaren bitartean edozelako komunikabideak erabiltzea, elektronikoan bereziki.

7. PUNTUAZIOA

Epaile bakoitzak, hurrengo zerrendan agertzen diren itemak baloratuko ditu eztabaida bakoitzean eta item bakoitza talde baten edo bestearen alde erabakiko du epaileak. Itema bere alde irabazi duen taldeak item horri dagozkion puntuak (1, 2 edo 3) jasoko ditu eta beste taldeak, batere ez. Aurretik erabakiko da item bakoitzari dagozkion puntu kopurua (1, 2 edo 3).

Irabazlea, puntu gehien lortzen dituen taldea izango da. Hurrengoak dira kalifikatu beharreko itemak:

- Argudioen kalitatea
- Eztabaidatutako gaiaren ikerketa lana
- Erantzuteko gaitasuna
- Lekuaren eta denboraren erabilera
- Taldeko lana
- Hizkera egokia
- Iritzi orokorra

Berdinketa emanez gero, "iritzi orokorra"

6. DESARROLLO DEL DEBATE

Durante el debate, los equipos no recibirán ninguna ayuda exterior y solo podrán comunicarse entre sí mediante notas escritas.

Está terminantemente prohibido emplear otros sistemas de comunicación durante el debate, en especial los electrónicos.

7. PUNTUACIÓN

Cada jueza o juez, dispondrá de una lista de ítems o aspectos que valorar en el debate. Por cada ítem de la lista, el juez o la jueza asignarán una X a uno solo de los dos equipos. Cada ítem de la lista tendrá asignado previamente un valor entre 1 y 3 (1,2 o 3), de modo que al equipo al que se le marque la X en un ítem, logrará 1,2 o 3 puntos en ese aspecto determinado (el máximo valor que se le haya asignado), mientras que el equipo contrario obtendrá 0 puntos en ese ítem.

Ganará el equipo que tenga la mayor calificación tras sumar las puntuaciones de todos los ítems.

Esta es la lista de ítems a valorar:

- Calidad de los argumentos
- Investigación del tema de debate
- Capacidad de refutación
- Uso del tiempo y el espacio
- Trabajo en equipo
- Uso del lenguaje adecuado
- Valoración general

Si se produce un empate, ganará el equipo con mejor calificación en el epígrafe "Valoración general". De persistir el empate, la presidencia

epigrafean lortutako puntuazioa hartuko da kontuan. Horrela ere, berdinketak badirau, epaile nagusiak izango du berdinketa apurtzeko beharrezkoa den kalitatezko botoa.

8. ZEHAPENAK

Eztabaida batean zehar eman daitezkeen arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste arinak: 3 itemeko zehapena dakarte

- Txanda bakoitzari eta galderen formulazioari emandako denboran luzatzea.
- Ezeztatze txandan, babestutako denbora ez errespetatzea
- Eztabaidara atzeratzea

Arau-hauste larriak: 6 itemeko zehapena dakarte

- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- Aipamen edo datu faltsuak, edo, guztiz egiazkoak ez direnak ematea.
- Egokiak ez diren hitzak erabiltzea eztabaidan zehar.
- Komunikabide elektronikoak erabiltzea eztabaidan zehar.

Arau-hauste oso larriak:

- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.
- Epaimahaiari, ikusleei edo bestelako partaide bati, bai bere taldekoa edo bestekoa izan, irainak, men ez egiteak,

del jurado lo resolverá mediante su voto de calidad.

8. SANCIONES

Las faltas cometidas en el debate pueden ser leves, graves o muy graves.

Faltas leves:

- excederse en el tiempo asignado a cada intervención y a la formulación de preguntas.
- No respetar el tiempo protegido de la refutación.
- Llegar con retraso al debate

Las faltas leves restarán 3 puntos a la calificación total.

Faltas graves:

- Cometer faltas leves reiteradamente
- Usar citas o datos total o parcialmente falsos
- Usar expresiones inapropiadas en el debate
- Usar sistemas de comunicación electrónicos en el debate

Las faltas graves restarán 6 puntos a la calificación total.

Faltas muy graves

- Cometer reiteradamente faltas graves
- Mostrar una actitud ofensiva, inadecuada o de menosprecio hacia el jurado, el público u hacia otros miembros de su equipo o del contrario.

Las faltas muy graves serán penalizadas con la

mespretxuak edo gutxiespenak egitea. Arau-hauste oso larriek topaketa galtzea eta lehiaketatik kanporatzea dakarte.

Zehapenak, ofizioz edo beste taldeak salaturik ezarriko dira bertan momentuan. Datu faltsu baten erreklamazioak aurrera egiten ez badu, arau-hauste larriaren izaera izango du.

9. LEHIAKETA

Lehiaketaren egitura izena emandako talde kopuruaren baldintzapean egongo da. Printzipioz, kopa egiten saiatu beharko da. Horrela, sistema honen bidez, talde bakoitzak unibertsitate guztiekin eztabaidatu ahalko du. Ez da inolako lehiaketa-batzorderik egongo, arbitroaren erabakiak apelaezinak izango dira ondorio guztietarako.

10. DATAK

Eztabaida 2018ko azaroaren 16an, Nafarroako Parlamentuan egingo da.

11. LEHIAKETAREN GAIA

"Europar Batasuneko immigrazio-politikak malgutu beharko lituzkete?"

12. SARIAK

Lehiaketan parte hartzen duten

derrota o la expulsión del torneo.

Las sanciones se aplicarán inmediatamente, y asea de oficio o por denuncia del equipo contrario. Si una reclamación por uso de datos falsos no prospera, tendrá el carácter de falta grave.

9. COMPETICIÓN

La estructura de la competición estará condicionada por el número de equipos que se inscriban. En principio se recurrirá al sistema de copa, de manera que cada equipo compita con todos los demás.

No existirá comité de competición alguno, las decisiones de la persona que arbitre serán inapelables a todos los efectos.

10. FECHAS

La competición se celebrará el 16 de noviembre en el Parlamento de Navarra.

11. TEMA de la COMPETICIÓN

¿Deberían los estados de la UE flexibilizar sus políticas de inmigración

12. PREMIOS

Todas las personas participantes recibirán una

guztiek jasoko dute UPNAk eskaintako opari-poltsa.

Horretaz gain, partaide bakoitzak jasoko du VI Eztatbaida Txapelketan hartu izanaren diploma

bolsa de regalo de la UPNA.

Además, todos los participantes recibirán un diploma acreditativo de su participación en la VI Eztatbaida Txapelketa.